

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

3234

EBAZPENA, 2014ko ekainaren 26koa, Turismoko zuzendariarena, 198/2013 Dekretuaren 27. artikulua aplikatzeari buruzko jarraibidea onartzen duena, eta aplikagarria den beste edozein xedapen betetzen dela baieztatzeko zein dokumentu aurkeztu behar den ezartzen duena.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 21.1 artikulua honela dio:

«Administrazioko organoek zerbitzuko jarraibide eta aginduen bidez zuzen ditzakete mendeko dituzten organoen ekintzak.

Zerbitzuko jarraibide eta aginduak dagokion agintaritzaren aldizkarian argitaratuko dira, xedapen bereziren batek hala ezartzen bada, edo, hartzaileak edo gerta daitezkeen ondorioak direla-eta, komenigarritzat jotzen bada».

Turismo-apartamentuak arautzen dituen apirilaren 16ko 198/2013 Dekretuaren 27. artikulua hau ezartzen du:

«Turismo-apartamentuen titularrek, turismo-arloko araez gain, honako arlo hauetan indarrean daudenak ere bete beharko dituzte: ingurumena, eraikuntza, arkitektura-, hirigintza- eta irisgarritasun-oztopoen ezabapena, makineriaren instalazioa eta funtzionamendua, osasuna, segurtasuna eta suteen prebentzioa, eta aplikagarriak diren beste hainbat».

Euskal Herriko Ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen II. eranskinean sailkatutako jarduera eta instalazioen zerrenda ezartzen da, eta B) atalean adierazten da jardueraren aurretiazko komunikazioa behar duten jarduera eta instalazioen zerrenda. Eta 7. puntuan, jarduera hauek sartzen dira:

«7.– Hotelak eta erresidentzia komunitarioak, edadetuen egoitzak, ostatuak eta halako etxeak».

Euskadiko turismoaren antolamendua arautzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legearen I. Zioen Adierazpenean –3. eta 4. puntuetan– ezarritakoa bermatzea helburu izanik (turismo-enpresa eta -subjektuen jarduera hobea, horien kalitatearen eta lehiakortasunaren alde, baita kontsumitzailearentzako babes hobea ere), Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 190/2013 Dekretuaren 17.1.b) artikuluaekin bat etorritik, eta turismo-apartamentuak arautzen dituen apirilaren 16ko 198/2013 Dekretuaren 27. artikulua aplikatzearen ondoriozko antolamendu-prozeduren kudeaketa koordinatua eta bateratua ahalbidetzen duen irizpide bateratu bat ezartzeko helburuz (artikulu horrek definizio generiko bat ezartzen baitu: «eta aplikagarriak diren beste hainbat»), hau

EBAZTEN DUT:

1.– Interpretatu behar da ezen «eta aplikagarriak diren beste hainbat [arau]» kontzeptupean jarduera ekonomiko bati hasiera emateari buruzko udal-araudia dagoela (adierazteko baino ez, mugatu gabe).

2.– Jardueraren titularrak Ikuskaritza Turistikoaren Zerbitzuen eskura jarri behar dituen dokumentuen artean egon behar da, gutxienez, jardueraren aurrekomunikazioa, jardueraren titularrak

dagokion udalaren aurrean aurkeztu eta erregistratutakoa, edo, hala dagokionean, derrigorrezko udal-lizentzia.

3.– Jarraibide hau turismo-apartamentuen jarduerari hasiera emateko espediente guztiei aplikatu behar zaie, izan jarraibide hau ematerakoan bideratzen ari diren espedienteak, izan gerora irekitzen direnak.

4.– Irizpide hau berariaz jasotzea turismo-apartamentuen jarduerari edo funtsezko eraberritzeei buruzko erantzukizun aitopenaren eremuan, ebazpen honen I. eranskinaren arabera.

5.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 21.1 artikulua aplikatuz, jarraibide hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 26a.

Turismoko zuzendaria,
MARÍA MERCEDES GARMENDIA BERECIARTU.

2014ko uztailaren 15a, asteartea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA LEHIAKORTASUN SAILADEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

TITULARRA

Izena edo baltzuaren izena:

NAN/IFZ:

Sexua: Emakumezkoa Gizonezkoa

Kalea:

Zk.:

Udalerria:

Herria:

PK:

Tel.-zk.:

Helbide elektronikoa:

LEGEZKO ORDEZKARIA

Izen-abizenak:

NAN:

Sexua: Emakumezkoa Gizonezkoa

ESTABLEZIMENDUARI BURUZKO DATUAK

Merkataritza-izena:

Kalea:

Zk.:

Udalerria:

Herria:

PK:

Tel.-zk.:

Helbide elektronikoa:

Webgunea:

UTM koordenatuak. X:

Y:

Google Mapen «URL»aren lokalizazioa:

TOKI KOPURUA, guztira:

Ostatu-unitate, guztira:

Saillkapena:

MODALITATEA	MAILA:				ESPEZIALITATEA
<input type="checkbox"/> BLOKEA	<input type="checkbox"/> 4 GILTZA	<input type="checkbox"/> 3 GILTZA	<input type="checkbox"/> 2 GILTZA	<input type="checkbox"/> 1 GILTZA	<input type="checkbox"/> LANDA
<input type="checkbox"/> MULTZOA	LUXUZKOA	LEHENA	BIGARRENA	HIRUGARRENA:	APARTAMENTUAK

AITORPENAREN GAIA:

 (ASB) Jarduera hastea (noiztik): (ASC) Titulartasuna aldatu (titular berria «Titularra» atalean jarritakoa da) (ASC) Edukiera aldatuta (edukiera berria «Establezimenduari buruzko datuak» atalean jarritakoa da) (ASC) Kategoria aldatuta (kategoria berria «Establezimenduari buruzko datuak» atalean jarritakoa da) (ASC) Beste aldatuta batzuk azpiegituran:

- Eraberritzearen indarrean sartzeko data:

ARABAKO LURRALDE ORDEZKARITZA
Samaniego 2
01008 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 01 70 55 / Faxa: 945 01 70 51GIPUZKOAKO LURRALDE ORDEZKARITZA
Easo 10
20006 San Sebastián
Tel. 943 02 25 64 / Faxa: 943 02 25 42BIZKAIKO LURRALDE ORDEZKARITZA
General Concha 23
48010 Bilbo
944 03 14 78 / Faxa: 944 03 14 45

2014ko uztailaren 15a, asteartea

**BEHEAN SINATZEN DUENAK HONAKO HAU DEKLARATZEN DU BERE ARDURAPEAN:**

- Administrazio Publikoaren aurrean ordezkari gisa diharduena behar bezala baimenduta dagoela.
- Pertsona juridikoa izanez gero, baltzuaeren eraketa-eskritura daukala eta egunean inskribatu zela dagokion erregistroan erreferentziarekin.
- Legezko ordezkaria ahalordetze-eskrituraz izendatu dela eta dagokion erregistroan inskribatu dela erreferentziarekin.
- Lokala, ostatu gisa jarduteko erabilgarri duela egiaztatzen duen honako agiri hau duela:
 - Salerosketa eskritura Errentamendu- edo lagapen-kontratua
 - Beste bat: _____
- Dagokion erantzun zibileko aseguruua duela, honako datuok jasotzen dituen:
 - Polizaren zk.: _____
 - Aseguru-erakundea: _____
 - Erantzukizun zibilari dagokion zenbatekoa: _____
- Establezimenduak, dagozkion dekretu arautzailean ezarritako baldintzak, Euskadin apartamentu-turistikoei buruzkoa besteak beste, betetzen dituela, bereziki, otsailaren 27ko, Euskadiko Ingurumenaren Babeseko 3/1998 Legeko III Kapitulua betetzeari kontatutakoak
- Erantzukizun aitorten honetan eta dekretu arautzailean, bertan ezarritako ezaugarriekin, aipatutakoaren dokumentazio egiaztatzailea daukala (establezimenduen jarduerari buruzko erantzukizun aitortpena: gauzatze memoria, logelen zerrenda inprimaki ofizialean, planuen kopiak. Eta establezimenduen funtsezko eraberritzei buruzko erantzukizun aitortpena: egindako aldaketeei dagokion dokumentazioa)
- Jarduera egikarrituko den denbora guztian eskakizunak betetzeko konpromisoa hartzen duela.

..... (e)n,(e)koaren(e)an.

Izenpea *	Erregistrarako gunea	
	Esp.-zk.:	Zigilua

* Ondasun-erkidegoa izanez gero, kide guztiek izenpetu behar dute. Legezko ordezkari bat baino gehiago izanez gero, eta mankomunatuak badira, horiek guztiek izenpetu behar dute

ADMINISTRAZIOAREN INFORMAZIOA

- Formulario honetako datuak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren erregistro informatikoan sartuko ditugu, eta horren berri ematen dizuegu, 15/1999 Lege Organikoaren (abenduaeren 13ko legea, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoa) 5. artikuluan ezarritakoari jarraiki; erregistroaren helburua turismo-administrazioari dagozkion eginkizun eta eskumenak egikaritzea da. Interesdunak espresuki baimentzen du bere datuen tratamendua eta datu horiek Euskadiko turismo-enpresa eta -establezimenduen gidetan eta gainerako sustapen-dokumentazioan argitaratzea, eta horien egiazkotasunaren arduradun egiten da. Interesdunak sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko bere eskubideak egikaritu ahaliko ditu, turismo-administrazioan bertaratuz zein idazki bidez eskatuta NANaren fotokopiarekin batera.
- Administrazioak behar besteko egiaztapen egingo ditu eskatzaileak aitorten honetan adierazitakoari dagokionez. Erantzukizun-deklarazioa ez aurkezteak, erantzukizun-deklarazioarekin batera edo horri gaineraturiko edozein datu, adierazpen edo dokumenturen akatsak, faltsutzeak edo funtsezko omisioak edo eskaturiko eskakizunak ez betetzeak, dagokion autoritateak egiaztatuta, Turismoari dagokion organoak titularak alegazioak, ebidentziak edo deskarguak aurkeztu ahal izateko prozedurari ekingo dio. Egindako kudeaketak ikusirik, arrazoitutako erabaki bidez ondorengoak ebatzi ahal izango ditu: establezimendua birklasifikatzea, jarduera gelditzea, interesduna behartzea egoera juridikoa dagokion jardueraren hasierara lehenarazi dezan, edo xede bera duen prozedurarik ezin eskatu ahal izatea urtebeteko aldi, 6/1994 Legearen 8. artikulua dioenari jarraikiz. Hori guztia, dagozkion zehapenak aparte utzi gabe.

Datozen egoerak funtsezko izaera izango dituzte:

- Segurtasunari buruzko araudia eta larrialdi egoeren aurrean autobabesari buruzko araudia ez egiaztatzea
- Irigarritasunari buruzko araudia ez egiaztatzea
- Dagokion erantzun zibileko aseguruua daukala ez egiaztatzea
- Apartamentu turistikotzat hartzeko baldintzak ez betetzeak, behar den prozeduraren arabera dagozkion betebeharren dispensa izan arren

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILAREN (Araba/Bizkaia/Gipuzkoa)KO LURRALDE ORDEZKARITZA

ARABAKO LURRALDE ORDEZKARITZA
Samaniego 2
01008 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 01 70 55 / Faxa: 945 01 70 51

GIPUZKOAKO LURRALDE ORDEZKARITZA
Easo 10
20006 San Sebastián
Tel. 943 02 25 64 / Faxa: 943 02 25 42

BIZKAIKO LURRALDE ORDEZKARITZA
General Concha 23
48010 Bilbo
944 03 14 78 / Faxa: 944 03 14 45